



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2003ko urriaren 6a

7. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Jabeldura, Itoizko urtegiak ukitutako herriak eraisteari buruzkoa, Aralar parlamentu-taldeak egina (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Senatuari eskatzera autonomien estatuaren egoeraren balantzea egiteko bilkura bat dei dezan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztua (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Frantzia aldera doan N-135 errepidea hobetu dezan. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak aurkeztua (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da muturreko tenperaturak pertsonen osasunerako dakartzan ondorioen prebentzio eta arretarako plan integrala presta dezan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztua (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Hezkuntzaren kalitatearen lege organikoa arbuizatzen du. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak aurkeztua (7. or.).
- Adierazpen politikoa, Espainiako Konstituzioa berrestearen XXV. urteurrenaren oroimenezkoa. Eledunen Batzarrak onetsia (8. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- Galdera, udak “ipar-mendebaldeko Nafarroa hezea” izenez ezagutzen den lurraldean izan duen eraginari buruzkoa, foru parlamentari José Luis Etxegarai Andueza jaunak egina (9. or.).
- Galdera, atal eta bulegoetako burutzen inguruko gai batzuei buruzkoa, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egina (10. or.).
- Galdera, José M.<sup>a</sup> de Lacoizqueta jaunaren herbarioari buruzkoa, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak egina (11. or.).
- Galdera, Tuterako suhiltzaileen parkearen ondoan dauden etxebizitza hutsei buruzkoa, foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak egina (12. or.).
- Galdera, haur hezkuntzan erabateko doakotasuna lortzeko hartu beharreko neurriei buruzkoa, foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak egina (13. or.).

- Galdera, eskolaurreko hezkuntza arautzeari buruzkoa, foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak egina (13. or.).
- Galdera, arte irakaskuntzak eta sormena sustatzeari buruzkoa, foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak egina (14. or.).
- Galdera, teknologia berriak curriculumean sartzeari buruzkoa, foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak egina (15. or.).
- Galdera, musika prestakuntzako jardueri buruzkoa, foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak egina (15. or.).
- Galdera, eskola instalazioen eta eraikinen erabilera errentagarri egiteko formulei buruzkoa, foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak egina (16. or.).
- Galdera, gau-eskoletarako dirulaguntzei buruzkoa, foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak egina (17. or.).
- Galdera, desabantaila soziala duten giza-taldeetako ikasleak hezkuntza sisteman sartzeko prozedura administratiboak errazteari buruzkoa, foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak egina (17. or.).
- Galdera, ikastetxeetan desabantaila soziala duten giza-taldeetako ikasleen banaketa bidezkoa egiteari buruzkoa, foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak egina (18. or.).
- Galdera, haur eta lehen hezkuntzan aniztasunaren tratamendurako neurriak berraztertu eta gaurkotzeari buruzkoa, foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak egina (19. or.).
- Galdera, aparteko gaitasun intelektuala duten ikasleentzako arretarako plan integral bat egiteari buruzkoa, foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak egina (19. or.).
- Galdera, ikastetxeei tratamendu bereizia emateko konpromisoari buruzkoa, foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak egina (20. or.).
- Galdera, helduentzako hezkuntza zabaltzeari buruzkoa, foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak egina (21. or.).
- Galdera, betetzen zailak diren lanpostuak dituzten irakasle taldeen iraupenari buruzkoa, foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak egina (21. or.).
- Galdera, unibertsitateko sisteman sartzea bultzatzeari buruzkoa, foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak egina (22. or.).
- Galdera, Tuteran unibertsitate ikasketak ezartzeko jarritako epeei buruzkoa, foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak egina (23. or.).
- Galdera, goi mailako irakaskuntzan sartzeko beka eta laguntza sistemaren garapenari buruzkoa, foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak egina (23. or.).

**G SAILA:****Txostenak, deialdiak, eta Parlamentuko informazioa:**

- Erabakia, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 2003ko irailaren 29an harturikoa, foru parlamentarien eta Legebiltzarreko langileen bizi-aseguruak, istripu-aseguruak eta azken horien osagarriak kontratatzeke lehiaketa publikorako deialdia egiten duena (25. or.).

**H SAILA:****Bestelako testu arau-emaileak:**

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Eskola Kontseilua-Hezkuntzako Batzorde Nagusian izanen dituen ordezkariak aukeratzeko arauak (26. or.).

---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

## **Jabeldura, Itoizko urtegiak ukitutako herriak eraisteari buruzkoa**

### *ARALAR PARLAMENTU-TALDEAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko irailaren 29an egindako bilkuran, Aralar parlamentu-taldeak Itoizko urtegiak ukitutako herriak eraisteari buruz aurkeztu zuen jabelduraren biderape-na onestea erabaki zuen. Biltzarreko Erregelamenduko 180. artikuluan ezarritakoarekin bat, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2003ko urriaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **JABELDURAREN TESTUA**

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 180. artikulua ezarritakoari jarraikiz, Nafarroako Parlamentuko Mahaiari honako jabeldura hau aurkeztu dio, eta tramitatzeko onar dezala eskatzen dio.

Itoizko urtegia betetzearen ondorioak jasanen dituzten herrietatik jendea aterarazi eta herri horiek eraisteko Nafarroako Gobernuak harturiko erabakia dela-eta azken hilabeteotan sarritan gertaturikoa ikusirik, eta horrek eragindako gizartegatazka aintzat hartuz, Aralar parlamentu-taldeak

jabeldura hau aurkeztu nahi dio Nafarroako Gobernuari:

Lehenik eta behin, jakin nahi du zergatik ari diren etxeak eta herriak eraisten Nafarroan, Itoizten kasuan, jakinik ezen munduko urtegi guztietan etxe eta herri horiek urpean segitzen dutela bere horretan, ukitu gabe.

Bigarrenik, herri horietako egoiliar finkoak irtenarazi eta etxeak eraisteko hainbesteko presaz jardutearen zergatia zein den, gogoan izanik oraindik eman gabe dagoen ebazpen judizial baten baitan dagoela urtegia guztiz betetzea eta, kasurik onenean ere, urteak beharko direla horretarako.

Hirugarrenik, ea zein den Nagore herri eraitsiko eraikin bateko arku bat erakustea bezalako ekintzen zergatia: horrelakoak berreskuratzeko borondatea ala eraispenei aurka egiten ari zaizkien pertsonen zuzenduriko erakustaldi harroputz bat egin nahia.

Hori horrela, Nafarroako Parlamentuko Mahaiari eskatzen diot aurreko jabeldura aurkeztutat jo dezala eta behar bezala tramita dezala.

Iruñean, 2003ko irailaren 23an

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Senatuari eskatzera autonomien estatuaren egoeraren balantzea egiteko bilkura bat dei dezan**

### *SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA*

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Senatuari eskatzera autonomien estatuaren egoeraren balantzea egiteko bilkura bat dei dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko irailaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2003ko urriaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **MOZIOAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko eledun Juan José Lizarbe Baztán jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua eta hurrengoek xedatua aplikatuz, honako mozio hau aurkeztu du, aintzat hartuta izan dadin eta Parlamentuko osoko bilkurak onetsi dezan. Mozioaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen da Senatuari eska diezaion bilkura bat egin dadila Autonomien Estatuaren egoerari buruzko balantze bat egiteko. Bilkura horretan parte hartuko lukete Espainiako autonomia erkidegoetako lehendakariak, Nafarroako Gobernuaren lehendakaria barne.

Senatuko Erregelamenduko 56. bis artikuluko 7. idatz-zatiak xedatzen duenez, Autonomia Erkidegoen Batzorde Orokorak urtean behin eta, nahitaez, lehen bilkuraldia amaitu aurretik, bilkura bat eginen du, gai-zerrendan gai bakarria izan dena: Autonomien Estatuaren egoerari buruzko balantze bat egitea.

1997tik ez da bilkura horretarako deirik egin, nahiz eta zenbait autonomia erkidegoetako gobernuak eta Senatuko parlamentu-talde batzuek horretarako eskaera egin izan duten.

Erregelamenduko 56. bis artikuluko 8. idatz-zatiak bigarren betebeharrak ezartzen du: "Aurreko artikuluan ezarritakoa ezertan galarazi gabe, Senatuak urtero osoko bilkura bat egingen du, zeinaren xede bakarria izan den baita Autonomien Estatuaren aztertzea".

Praktikan (nahiz eta, 1997tik aurrera, horrela jokatzeari utzi zitzaion), Gobernuaren eta parlamentu-taldeen artean egiten zen bigarren eztabaida hori, biltzarren osoko bilkuran, Batzorde Orokorrean bukatu eta berehala. Horren alderdirik garrantzitsuenak da horixe dela aukera bakarria, gure sistema instituzionalean, autonomia erkidegoetako lehendakariak nazioko gobernuaren lehendakariarekin zenbait gairi buruz eztabaidatu ahal izateko.

Senatuan legegintzaldi honen hasieran sorturiko ponentziak, biltzar horrek dituen lurralde-eginkizunak eta hartan eginiko eztabaida autonomikoa nola hobetu ditzakegun aztertzeak, ez dira deitua izan 2000ko irailaz geroztik.

Beraz, legegintzaldi honetan zehar, lehen aipaturiko erregelamendu-arauak hautsi izanaren ondorioz, ez da Autonomien Estatuari buruzko inolako eztabaidarik egin.

Zenbait autonomia erkidegoetako gobernuak eskatu egin dute eztabaida hori egitea, eta adierazi dute erakunde-anomaliatzat jotzen dutela lurralde-etzabaida gure herriko bizitzaren politikari eta sozialaren esparru guztietan egotea, Senatuan izan ezik; alegia, gure Estatuaren gobernuaren ardura-dunek elkarrekin hitz egin eta eztabaida dezaketen gune bakarrean.

Bestalde, Nafarroako Gobernuak, zeina UPNk eta CDNk osatzen baitute, bere gobernu-programan dio helburuetako bat dela "Senatuaren erreforma-prozesuetan parte hartzea, lurraldeen egiazko ordezkapen-biltzarra izan dadila lortzeko"; eta horrek, inplizituki, gutxienez ere behartzen du Senatuaren gaur egungo Erregelamendua betetzera lurralde-ordezkapeneko biltzarra den aldetik izan behar duen jarduerari eta politika autonomikoko eztabaidei dagokienez.

Horregatik guztiagatik, eta legegintzaldia amaitzear dagoela gogoan izanik, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak honako

mozio hau aurkezten du, aintzat hartua izan dadin eta Legebiltzarreko osoko bilkurak onets dezan:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Senatuari eskatzera Autonomien Estatuaren egoeraren balantzea egiteko bil-

kura bat egin dadin. Bertan parte hartuko lukete Espainiako autonomia erkidegoetako lehendakariak, Nafarroako Gobernuako lehendakaria barne.

Iruñean, 2003ko irailaren 23an

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Frantzia aldera doan N-135 errepidea hobetu dezan**

### *IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA*

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Frantzia aldera doan N-135 errepidea hobetu dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko irailaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Herrilan eta Azpiegitura Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2003ko urriaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **MOZIOAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Herrilan eta Azpiegitura Batzordean eztabaidatzeko:

Nafarroako Gobernuaren helburuetako bat da Foru Komunitateak zuzeneko irteera bat izatea Frantziara, N-135 errepidearen bitartez.

Gaur egun, helburu horrek ez dauka proiektu finkorik; izan ere, Errepideei buruzko II. plan zuzendariak esaten duenez, gobernuak adostasuna bilatu beharko du herri, eskualde eta Estatu-tako agintariekin, ekintza horri bultzada eman ahal izateko.

Hala ere, oinarritzkoa da proiektu honek ukitutako herri guztiei azpiegitura egokiak orain bertan ematea, biztanleria (6.000 pertsona inguru) finkatu ahal izateko.

Nahitaezkoa da eskualde horiek garatzea lanpostuen sortzea eta kalitatezko oinarritzko zerbitzuen bermea uztartuz.

Hori dela-eta, IUN/NEBren parlamentu-taldeak ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du N-135 errepidea hobetzeko behar den proiektua egin dezan, eta Erro, Mezkitz eta Luzaiden tunel bana eraiki dezan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ekintza hori gauzatzeko egutegi bat hiru hilabeteko epean aurkez dezan; halaber, premiatzen da hurrengo aurrekontuetan kontu-sail bat osa dezan, obra horri ekin ahal izateko.

Iruñean, 2003ko irailaren 24an

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da muturreko tenperaturak pertsonen osasunerako dakartzan ondorioen prebentzio eta arretarako plan integrala presta dezan**

### *SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA*

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da muturreko tenperaturak pertsonen osasunerako dakartzan ondorioen prebentzio eta arretarako plan integrala presta dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko irailaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osasun Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2003ko urriaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **MOZIOAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osasun Batzordean eztabaidatu eta onesteko. Mozioan eskatzen da pertsonen osasunean muturretako tenperaturek izaten dituzten ondorioen prebentzio eta tratamenduari buruzko plan integral bat egin dadila.

Azken asteotan, hedabideen bitartez, oraintsu izan den bero-boladako tenperaturaren gorakadak pertsona askoren osasunean eragindako ondorio larrien berri izan dugu.

Ikuspegi epidemiologikotik, aspalditik ezaguna da osasunean muturretako tenperaturek (hala beroak nola hotzak) izan ohi duten eragina. Ondorio horiek hein handienez pairatzen dituztenak pertsona zaharrak, haurrak, gaixotasun kronikoak dauzkaten pertsonak edo menpekotasun-egoera batean daudenak izaten dira.

Uda honetan gauza nabarmena izan da muturretako tenperaturaren ondorioz laguntza-eskaerak izan duen gorakada, eta horren berri eman dute hedabideek. Albiste horiek eta Frantziatik zetozenak ildo berekoak ziren, eta horrek kezka handiagoa sortu zuen herritarrengan.

Adituen eta profesionalen iritziz, ez-ohiko tenperatura horiek gaixo kronikoek zituzten patologiak larritzea eragin dute, eta, ondorioz, heriotza-kopurua izugarri goarazi dute.

Gaur den egunean, Gobernuak ez du oraindik eskaini gertaturikoari buruzko diagnostiko egoki eta sinesgarriak, ez eta kalteturiko pertsona-kopuruari buruzkorik. Prebentziorako erantzun eragingarri bati buruz ere ez du ezer esan; alegia, herritarrak bero-boladaren eraginei buruz ohartarazteko balio izanen duen erantzun bat, eta gizarteko pertsonarik ahulenak direnengan eta gaixo daudenengan beroak eragindako hondamena saihesteko behar diren aholkuak eskainiko dituen.

Negua aurki iristekoa da, eta, horrekin batera, litekeena da muturreko hotzaldiak ere izatea; horrela, bada, espero izatekoak dira antzeko ondorioak, beraz negatiboak, giza talderik ahulenen osasunerako eta, bereziki, gaixotasun kronikoak direla-eta babesik gutxien dutenen osasunerako.

Uda honetan gertaturikoa ez errepikatzeke, bermeak ezarri behar dira horrelako egoerei aurre egiteko, tratamendurako baliabideen eta beharrezkoa den laguntzaren planifikazio egoki baten bidez, halako moldez non prebentzioa egitea eta laguntza ematea eraginkortasunez gauzatu ahal baitira.

Hori guztia dela-eta, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du, Parlamentuan behar den batzordean eztabaidatu eta onets dadin:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du plan integral bat presta dezan, muturreko tenperaturek pertsonen osasunean eragiten dituzten ondorioen prebentzio eta tratamendurako. Besteak beste, plan horrek honakoak jaso beharko ditu:

1) Prebentziorako eta tratamendurako osasun-neurri egokiak, bereziki babesgabeak diren gizarte-kolektiboek muturreko bero edo hotzaren ondorioz izaten dituzten berariazko beharrezko eraginkortasunez erantzun ahal izateko.

2) Beharrezkoak diren gizarte-laguntzaren esparruko neurriak, besteren menpekoak diren

gizarte-kolektiboek horrelako larrialdietan laguntza berezia izan dezaten.

3) Beharrezkoak diren informazio-neurriak, biztanleek horrelako egoera ez-ohikoen bilakaeraren berri izan dezaten eta haiei eraginkortasunez aurre egiteko aholkuak jaso ditzaten, horrela muturreko tenperaturen eragin kaltegarriak prebenitu eta saihestu ahal izateko.

4) Erregistroak berraztertu eta hobetzea, behar bezain azkar izateko eskueran estatistika fidagarri, objektibo eta eskuragarriak.

Iruñean, 2003ko irailaren 24an

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Hezkuntzaren kalitatearen lege organikoa arbuiatzen du**

### ***IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA***

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Hezkuntzaren kalitatearen lege organikoa arbuiatzen du".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko irailaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Hezkuntza eta Kultura Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2003ko urriaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **MOZIOAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du, osoko bilkuran eztabaidatzeko:

Zioen azalpena:

Ekain eta uztailean onetsi dira Hezkuntza Ministerioak prestatutako zenbait errege dekretu, Hezkuntzaren Kalitatearen Lege Organikoa (HKLO) garatzen dutenak. Nafarroaren eskumenak murrizten dituzten garapenerako errege dekretuak, hain zuzen ere: ezartzen duten curriculum-diseinua hain da hertsia eta homogenea, non gure eskumenak, praktikan, ezereztatu egiten baitira. Gehiegikeria hori horrela, Nafarroako Gobernuak, ezertxo ere ez esateaz gain, dekretuei bere babesa eman die, eta PPren gobernua-  
ren hezkuntza-arloko gurutzadarekin bat egin du. Horrela, Nafarroak oso ahalmen txikia dauka hezkuntzaren arloko bere curriculum-eredua taxutzeko.

tuei bere babesa eman die, eta PPren gobernua-  
ren hezkuntza-arloko gurutzadarekin bat egin du. Horrela, Nafarroak oso ahalmen txikia dauka hezkuntzaren arloko bere curriculum-eredua taxutzeko.

Besteak beste, aipaturiko errege dekretuek ekartzen dute erlijio konfesionalaren (katolikoa, edo Estatuarekin hitzarmenak dituzten beste erlijio batzuk) ikasgaia eta horren alternatiba ere indartzea; praktikan, batzuk eta bestea oso antzekoak dira, edukien ikuspegitik. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, nahitaezkoak dira erlijio konfesionalaren ikasgaia eta haren alternatiba; puntuak ematen dituzte, eta eskola-curriculumean garrantzia daukate. Eta, azken batean, eskola-adineko biztanleria guztia doktrinatzeko modu bat da hori. Nahita nahasten da kultura eta jakintza (baita erlijio-fenomenoari buruzkoak ere) bereganatzea, batetik, eta katekesia ematea, bestetik; azken hori erlijio bakoitzarenak diren zentro eta instalazioetan egin beharko litzateke.

Kontzientzia-askatasuna da Konstituzioak aitorturiko oinarritzko eskubideetako bat. Alabaina, PP eta UPN tematzen dira herritarren askatasuna errespetatzen ez duen hezkuntza-eredu publiko ideologizatu baten aldeko apustuan. Aski da gogoraraztea ezen erlijio jakin batzuen ideiak (bereziki, hierarkia katolikoak sustatzen dituenak), sexu-hezkuntza, antisorgailu edo homosexualitatearen arlokoak, herritar gehienek dituztenen aurkakoak direla.

Erabaki proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak bere ezetza ematen die Hezkuntzaren Kalitatearen Lege Organikori eta hori garatzeko errege dekretuei, zeren eta

Nafarroako Foru Komunitateak irakaskuntzaren alorrean dituen eskumenak murriztu egiten baituzte.

2. Nafarroako Parlamentuak adierazten du bere ezetza ematen diola erlijioaren irakaskuntzari buruzko araudiaren bidez hezkuntza-sistema publikoan ezarri nahi den doktrinatzeko ideologikoari.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Foru Komunitatearen eskumenak defenda ditzan, horretarako behar diren urratsak emanez politikaren eta zuzenbidearen arloan, Hezkuntzaren Kalitatearen Lege Organikoaren garapenarekin zerikusia dutenak.

Iruñean, 2003ko irailaren 25ean

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

## **Adierazpen politikoa, Espainiako Konstituzioa berrestearen XXV. urteurrenaren oroimenezkoa**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

Eledunen Batzarrak, 2003ko irailaren 29an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpen politikoa onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak beharrezko deritzo Espainiako Konstituzioaren 25. urteurrenaren oroimenezko ekitaldiak antolatuko dituzten erakundeekin bat egiteari, hura baita gaur egungo esparru juridikoaren oinarria, eta bertatik sortuak direlako Nafarroako Foru Komunitateko erakunde demokratikoak eta, haien artean, Nafarroako Parlamentua bera; halaber, Nafarroako foru araubidearen gaur egungo eta etorkizuneko garapen demokratikoan hark izan duen eta orain ere duen garrantziarengatik.

2. Nafarroako Parlamentuak osoko bilkura berezia egingen du, 1978ko abenduaren 6ko erreferendumean Nafarroako herriak eta Espainiako herriak Espainiako Konstituzioa berretsi izanaren 25. urteurrenaren oroimenez.

3. Eledunen Batzarrak Nafarroako Parlamentuko lehendakariari eskatzen dio aipaturiko 25. urteurrena ospatzeko ekitaldi-multzo bat antola dadila, Espainiako herriak Espainiako Konstituzioa berresteko aipaturiko erreferenduma egin aurreko egunetarako.

Ekitaldiak hauek izan litezke: Nafarroan urteurren hori ospatzeko erakusketa bat egitea; abenduaren 6an Nafarroako Parlamentuaren eraikina jendeari zabaltzeko eguna antolatzea; hizpide dugun gaiarekin zerikusia daukaten hitzaldi-sorta bat; eta Espainiako Konstituzioan giza eta gizarte eskubideak aitortzearekin zerikusia duen literatura-lehiaketa bat antolatzea eskola-haurrentzat, ospakizunak horrela Nafarroako gazteei eta ikas-tetxeei helarazteko.”

Iruñean, 2003ko urriaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin



---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, udak “ipar-mendebaldeko Nafarroa hezea” izenaz ezagutzen den lurraldean izan duen eraginari buruzkoa***FORU PARLAMENTARI JOSÉ LUIS ETXEGARAI ANDUEZA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko irailaren 29an egindako bilkuran, foru parlamentari José Luis Etxegarai Andueza jaunak udak “ipar-mendebaldeko Nafarroa hezea” izenaz ezagutzen den lurraldean izan duen eraginari buruz egindako galdera tramitera onartzea erabaki zuen. Galdegi-leak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2003ko urriaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**GALDERAREN TESTUA**

Askotariko parlamentu-taldeko foru parlamentari José Luis Etxegarai Andueza jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 184. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, idatziz erantzun diezaioten:

Uda-sasoia bereziki lehorra izan da Urdazubi eta Zugarramurdi, Baztan, Bertizarana, Maldaerreka eta Bortzirriak eskualdeetan; “ipar-mendebaldeko Nafarroa hezea” deitu ohi zaion lurraldea osatzen duten horietan, hain zuzen ere. Izan den tenperatura-segida historikotzat jo daiteke, bai eta erabateko euririk eza. Nafarroako Meteorologia Zerbitzuak berak emandako datuen arabera, 39 graduak alde handiz gainditu ziren, eta, abuztuaren 4an, 44,7 gradutara iritsi zen tenperatura. Horiek guztiak erabat ez-ohikoak dira aipaturiko eskualdean.

Tenperatura horiek eta euririk egin ez izanak eragin negatibo izugarrikoa izan dute landare-tzan eta zelaietan, non eta gaur egun oraindik ere funtsean abeltzaintzan diharduen eskualde batean, zeinaren ekonomia lehen sektorearen menpean baitago hein handi batean. Abeltzainen abereentzako bazkarik gehien ematen duten zelaiak eta, zehazki, negu-sasoira gordetzen den

bazka ematen dutenak, hondatuta gelditu dira, beroaren ondorioz. Zelaiak zeharo kiskalita daude, eta siloratzeko belar-produkzio normala izugarri murriztu da, kezka larria eragiteraino.

Egoera horretan, abeltzain askok negurako gordetako bazka erabili behar izan dute jadanik, eta kanpotik kantitate handiak eta prezio altuan erosi behar izaten ari dira, neguan abereentzako behar adina elikagai eduki ahal izateko.

Egoera horrek egonezin handia sortu du Piri-nioetako eskualde guztian eta, parlamentari honek zuzenkiago ezagutzen duenez, Urdazubi eta Zugarramurdiko eskualdean, Baztan ibarrean eta Bertizarana, Maldaerreka eta Bortzirriak inguruetan. Abeltzainak beldur dira epe oso laburrera begiratu euren ustiattegietan daukaten ikuspegi beltza dela-eta; halaber, haiek sektore honetan (ziur aski beste edozein baino neurri handiagoan dagoena eguraldiaren baitan, menpekotasun erabakigarrian, eta faktore oso ezberdinen ondorioz gero eta errentagarritasun zailagoa duena) egin beharreko inbertsioaren gorakada nabarmenak oraindik gehiago kezkatzen ditu.

Gainera, uste izatekoa da euren abereen eta ustiategiaren iraupena arriskuan egon ez dadin abeltzain horiek erosi behar izaten ari diren bazka gehigarriaren salneurria nabarmen igoko dela, eskariaren eta eskaintzaren legearen ondorioz.

Horrek guztiak ziurgabetasuna, egonezina eta beldurra pizten ditu, eta begi-bistakoa da badagoe-la horretarako arrazoi sendorik. Horregatik, parlamentari honek eskatzen du idatziz erantzun diezaiotela ondoko galderari:

a) Nekazaritza eta Abeltzaintza Departamentuak egin al du, kalteturiko sektoreetan, inolako egiaztapen, balioespen, azterlan edo kontsultarik, nekazaritza eta abeltzaintzako ustiattegietako jarduera normalean egoera horrek epe laburrean eraginen dituen ondorioei buruz, bai eta ekonomia horiei –zeinak, gauza jakina denez, maiz asko

familiatan oinarriturik egoten diren eta betiere bereziki ahulak diren— ekarriko dizkien kalteei buruz?

b) Nekazaritza eta Abeltzaintza Departamentuak neurririk hartu al du, ala epe laburrean hartzeko asmorik ba al du, egoera horri aurre egiteko nolabaiteko laguntzak ebaluatu eta, kasua bada, emateko, bai eta aurreikusitako gabeko eta/edo aparatuko bazka nahiz aleak erosi behar izateari erant-

zuteko eta/edo behar litezkeen kredituak eskuratzeko interes-tasarako hobariak emateko?

c) Nekazaritza eta Abeltzaintza Departamentuak beste inolako erabakirik hartu du ala hartzeko asmorik du, egoera hori arindu eta kaltetuei lagundu eta haiek lasaitzeko?

Iruñean, 2003ko irailaren 23an

Foru parlamentaria: José Luis Etxegarai Andueza

## Galdera, atal eta bulegoetako burutzen inguruko gai batzuei buruzkoa

### FORU PARLAMENTARI MIGUEL JOSÉ IZU BELLOSO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko irailaren 29an egindako bilkuran, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak atal eta bulegoetako burutzen inguruko gai batzuei buruz egindako galdera tramitera onartzea erabaki zuen. Galdegi-leak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2003ko urriaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

#### GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzuteko:

Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta CCOO eta UGT sindikatuen ordezkariak 2002ko apirilaren 15ean sinaturiko akordioaren bitartez finkatu ziren 2002 eta 2003 urteetan Nafarroako administrazio publikoetako funtzionarioek eta estatutupeko langileek izan beharreko enplegu-baldintzak (akordioa 2002ko ekainaren 5eko 68. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen). Besteak beste, xedatzen zen Foru Komunitateko administrazioa atal eta bulegoetako eta haren erakunde autonomoetako unitate parekatuetako burutzak merezimendu-lehiaketa bitartez betetzeko deialdiko prozesua has zedila, eranskin gisa gehitu zen plan bati jarraituz, zeinaren arabera 2001eko abenduaren 31n zeuden 931 burutzen 100eko 12,5erako deialdia eginen baitzen urtero.

Plan hura aplikatuz, atal, bulego eta parekatu-riko unitate batzuetako buruztarako deialdia egin zen; horietako gehienetarako (86 burutza) deia Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiaren 2003ko maiatzaren 6ko ebazpenaren bitartez egin zen (2003ko maiatzaren 23ko 65. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua). Deialdi horretako lehen oinarrian ezartzen denez, baldin eta merezimendu-lehiaketaren tramitazioan zehar desegin egiten bada deialdian sarturiko unitate organikoetaren bat, kasuan kasuko departamentu edo erakunde autonomoko egitura organikoa aldatzearen ondorioz, funtzio publikoaren zuzendari nagusiak ebazpen bat eman behar du, aipaturiko burutzari dagokionez lehiaketa indarririk gabe uzteko.

Joan den maiatzaren 25ean eginiko Nafarroako Parlamenturako hauteskundeetatik sorturiko Nafarroako Gobernu berria eratu ondoren, Foru Komunitateko administrazioa zenbait departamentutako egitura organikoetan aldatetak izan dira, aipaturiko deialdiei eragiten dietenak, lehiaketa bidez bete beharreko burutza zeukaten unitateetako batzuk desegin egin baitira. Bestalde, unitate berriak sortu dira, gehienbat atalak, eta haietako buruak behin-behineko hautatu dira; hori dela-eta, logikoa denez, burutzak betetzeko planeko kopuru-aurreikuspenak aldatu egin beharko dira.

Horrela, bada, gogoan izanik Foru Komunitateko administrazioa antolaketan izandako aldaketek zuzeneko eragina daukatela sindikatuen ordezkariekin sinaturiko akordioak betetzeko garaian, eta zuzenean ukitzen dituztela zenbait funtzionarioek lanbidean mailaz igotzeko zeukaten itxaropenak, desagerturiko unitate organikoetako

burutzetarako lehiaketan parte hartzea eskatuta baitzeukaten, hona galdera hauek:

1. Atal, bulego edo parekaturiko unitateetako zenbat burutzari, lehiaketa bidez betetzekoak zirenak horretarako deialdia egin ondoren, eragin die haiek atxikirik zeuden departamentuaren egitura organiko berriaren ondorioz unitate horiek desegiteak?

2. Zer neurri hartzeko asmoa dauka Nafarroako Gobernuak, atal, bulego eta parekaturiko unitateetako burutzak betetzeari buruz sindikatuen ordezkariekin izenpeturiko akordioak betetzen direla ziurtatzeko?

Iruñean, 2003ko irailaren 24an

Foru parlamentaria: Miguel José Izu Beloso

## Galdera, José M.<sup>a</sup> de Lacoizqueta jaunaren herbarioari buruzkoa

*FORU PARLAMENTARI HELENA BERRUEZO VALENCIA ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko irailaren 29an egindako bilkuran, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak José M.<sup>a</sup> de Lacoizqueta jaunaren herbarioari buruz egindako galdera tramitera onartzea erabaki zuen. Galdegi-leak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2003ko urriaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Helena Berruezo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan. Galderaren gaia da Gasteizko Zientzia Museoak José María de Lacoizqueta jaunaren herbarioa jaso izana (Nafarroako zaharrena eta arduratsuen delata jotzen da), nahiz eta haren oinordekoek, dirudienez, herbarioa lehenik Nafarroako erakundeei lagatzeko saioa egin zuten.

José María de Lacoizqueta (1831-1889) XIX. mendeko zientzialari bat izan zen, bere garaiko botanikaririk entzutetsuenetakoa. Hari zor zaio Nafarroako herbariorik zaharrena eta arduratsuenena. Landare-bilduma bat da, batez ere goroldio eta likenena, eta liluratu egin ditu azken egunotan ikusi ahal izan duten botanikariak; oinordekoei, ordea, enbarazu besterik ez zien egiten. 5.500 sorta (karpeta) dira, barnean belar idortuak gordezen dituztenak. Urte askotan galduta egon arren, nahiz eta salbu, herbarioa azkenean Lekarozko Kaputxinoen ikastetxeari laga zitzaion. Alabaina, ikastetxe hori dagoeneko itxita dago, eta Eduardo

Gil Vera idazleak herbarioa erreskatatu eta haren zat gordailu duin bat aurkitu du: Gasteizko Natur Zientzien Museoari eskaini dio, eta hark harriduraz jaso du.

Bilduma museora iritsi aurretik, prentsako informazio baten arabera “azkeneko oinordekoen baserriko ukuiluan” egon zen gorderik, eta oinordeko horiek harremana daukate Eduardo Gil Verarekin, zeina saio eta nobela historikoaren egilea eta zenbait literatur sariren irabazlea baita. Aipaturiko idazleak –2003ko irailaren 24ko “El País” egunkariak argitaratutako informazio baten arabera– herbarioa Nafarroako erakundeei lagatzeko aukerak ikusteko urrats batzuk eman zituen, baina Gasteizko Zientzia Museoak berme gehiago eskaini zizkion, bere funtsetan jadanik beste bi herbario baititu.

Hori dela-eta, parlamentari honek jakin nahi du, idatziz, Nafarroako Gobernuak gai hauei ematen dien erantzuna:

- Ba al zeukaten Nafarroako Gobernuak kultura eta ondare arloetako arduradunek herbario horren berri?

- Herbarioak Nafarroan segitzeko xedez zer urrats eman dituzte Nafarroako Gobernuak arduradun horiek?

- Nafarroako Gobernuaren arabera, zer arrazoi direla-eta eraman da José María de Lacoizqueta jaunaren herbarioa Gasteizko Zientzia Museoara, Nafarroako Foru Komunitateko museoren batera eraman beharrean?

- Zer jarrera dute arazo honetan Nafarroako Gobernuak Kultura eta Ondare arduradunek?

Iruñean, 2003ko irailaren 25ean

Foru parlamentaria: Helena Berruezo Valencia

## **Galdera, Tuterako suhiltzaileen parkearen ondoan dauden etxebizitza hutsei buruzkoa**

### *FORU PARLAMENTARI ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko irailaren 29an egindako bilkuran, foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak Tuterako suhiltzaileen parkearen ondoan dauden etxebizitza hutsei buruz egindako galdera tramitera onartzea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2003ko urriaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **GALDERAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak, Legebiltzarreko

Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu dio Etxebizitza Departamentuari:

Tuteran, suhiltzaile-etxearen ondoan, dirudie-nez hutsik dauden etxebizitza batzuk daude.

Jakin nahi genuke zehazki horietatik zenbat dauden hutsik; zer-nolako baldintzatan dauden etxebizitza horiek bertan bizi ahal izateko; eta etxebizitza horiekin zer egiteko asmoa duen Gobernuak, edo zure departamentuak.

Gaur egun, gauza jakina da prezio egokiak dituzten etxebizitzak behar direla edonon, baita Tuteran ere.

Horregatik, talde politiko honek jakin nahi du ea Etxebizitza Departamentua aintzat hartzen ari ote den aipaturiko etxebizitza horiek etxebizitza sozial gisa erabiltzea.

Iruñean, 2003ko irailaren 25ean

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

## **Galdera, haur hezkuntzan erabateko doakotasuna lortzeko hartu beharreko neurriei buruzkoa**

*FORU PARLAMENTARI CARLOS CRISTÓBAL GARCIA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko irailaren 29an egindako bilkuran, foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak haur hezkuntzan erabateko doakotasuna lortzeko hartu beharreko neurriei buruz egindako galdera tramitera onartzea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2003ko urriaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Hezkuntza kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Joan den irailaren 19an, Hezkuntza kontseilari Luis Campoy jaunak agerraldia egin zuen Nafarroako

Parlamentuko Hezkuntza eta Kultura Batzordean, Hezkuntza Departamentuak 2003-2006 legegintzaldirako prestatu dituen lan-ildoen berri emateko.

Behean sinatzen duen parlamentari honen iritziz, kontseilariaren agerraldia "orokorregia" izan zen, eta denborarik ezagatik edo komenigarria iruditzen ez zitzaiolako, kontseilaria itzuri egin zitzaion lan-ildo horien alderdi batzuk zehazteari, zeinak, parlamentari honen iritziz, Luis Campoy jaunak Hezkuntza Departamentuan izanen duen ibilbidearen hasieran ezagutu beharrekoak baitira.

Hori dela-eta, kontseilariaren mintzaldian zeuden hutsuneak betetzeko asmoz, behean sinatzen duen parlamentari honek jakin nahi du, idatziz, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza kontseilariak galdera honi ematen dion erantzuna:

– Zein neurri hartu behar ditu Hezkuntza Departamentuak haur hezkuntza erabat doakoa izatea lortzeko?

Iruñean, 2003ko irailaren 26an

Foru parlamentaria: Carlos Cristóbal García

## **Galdera, eskolaurreko hezkuntza arautzeari buruzkoa**

*FORU PARLAMENTARI CARLOS CRISTÓBAL GARCIA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko irailaren 29an egindako bilkuran, foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak eskolaurreko hezkuntza arautzeari buruz egindako galdera tramitera onartzea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2003ko urriaren 1ean

